



BIOPSIA HEPATIKOA

Zertan datza gibleko biopsia?

Gibleko biopsia anestesia lokala erabiliz egiten da, ekografia edo OTA bidez gidatuta. Eskuineko aldean orratz baten ziztada baten bidez lortzen da lagina. Ondoren, lagin hori Anatomia Patologikoan aztertzen da, patologia identifikatu ahal izateko.

Zertarako egiten da?

Gibleko biopsia gibleko lagin bat lortzeko egiten da; lagin horren azterketa eginda gibelak duen gaixotasun motari buruzko informazioa lortuko dugu, eta horrek pronostikoa ezagutzen lagundu eta, batzuetan, gaixotasuna hobetu dezaketen tratamendu jakin batzuetarako aukera zabalduko du.

Nola prestatu behar dut probarako?

Gibleko biopsia bat egiteko, honako hauek aurreikusi behar dira aldezturik:

- **Baraurik** egon behar da (solidoa eta likidoa) proba egin aurreko 8 orduetan.
- Gutxienez 24 ordu ospitaleratu behar dira, probaren ondoren izan daitezkeen konplikazioak kontrolatzeko.
- Diabetikoa bazara (ikus erantsitako orria).
- Antiagregatzaileak edo antikoagulatzaileak hartzen badituzu, jarraitu medikuak adierazitako jarraibidea.

Zer hartu behar dut kontuan ospitaleko alta jaso ondoren?

- Ez egin esfortzu fisikorik besoak erabiliz eta ez hartu pisurik.
- Ez egin ariketa indartsurik.
- Hematoma txiki bat izan dezakezu ziztada-gunean, eta egun gutxi barru desagertu egingo da.
- Ziztada-gunean mina izanez gero, jarraitu medikuak adierazitako jarraibidea. Aspirina® ez hartu.
- Antiagregatzaileak edo antikoagulatzaileak hartuz gero (Adiro®, Sintrom®, Pradaxa®, Clopidogrel®...), medikuak emandako jarraibideak jarraituta berriko sartuko duzu.
- Galdetu medikuari tenperatura 38°-tik gorakoa bada edo dardararik baduzu lehenengo 24-48 orduetan.

Digestiboa/Hepatologia Unitatea: Telefono-zenbakia: 945007573

2024ko otsailean egina

IO-DIGESTIBOA-HEPATOLOGIA UNITATEA-03

Informazio gehiago nahi izanez gero, galdetu, zalantzarik gabe, arreta ematen dizuten profesionalei